

# AURREJARDUERA: BIODIBERTSITATEA



DBH I. zikloa



**HARTZAILEAK:** DBH I. ZIKLOA

**DENBORA:** 60 min.

**HELBURUAK:**

- Paisaian elementu naturalak eta antropikoak daudela ohartzea.
- Gizakiak ingurumenean duen eraginaz jabetzea.
- Gizakiaren ingurumen eraginak bizidunengan eragiten dutela ohartzea.
- Museoan landuko diren elementuak eta kontzeptuak ezagutzea.

**EDUKIAK:**

- Paisaiako elementu abiotikoak.
- Paisaiako elementu biotikoak.
- Paisaiako elementu antropikoak.

**METODOLOGIA:**

Museora bisitaldia egin aurretik, Azpeitirako bidean, autobusetik paisaia behatuko dute. Horretarako, aurretik fitxa bat banatuko zaie, eta bertan ikusi ahal izango dute kontuan izan beharko dituzten paisaiako elementuen zerrenda.

Bidaia egin ondoren hausnarketa egiteko galdera batzuk ere erantsi dira fitxa horretan.

**GIDOIA:**

‘Paisaiaren behaketa’ fitxa.

## PAISAIAREN BEHAKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiak aberatsak eta askotarikoak dira. Kokaleku geografikoa, geologia, orografia aldakorra eta klima dira, besteak beste, paisaia horien eragile naturalak; eta, horiek alde batetik, eta giza ekintzak bestetik, paisaia aberatsa eta askotarikoa izatea eragin dute, eta eragiten ari dira.

Nolanahi ere, paisaien eboluzioak ez ditu beti paisaiaren balioak errespetatu. Batzuetan, batez ere azken hamarraldiotan, lurraldea asko eraldatu da eta bizkor. Guzti honek zenbait paisaiaren degradazioa eragin du. Honela, lurraldea oso antropizatuta eta urbanizatuta dago. Ezinbestekoa da horretaz guztiaz jabetzea. Horrexegatik, Azpeitirako bidaian ahaleginak egingo ditugu paisaiaren behaketa bat egiteko. Horretarako, kontuan izan beharreko elementuen zerrenda honakoa da:

DBH I. zikloa



ABIOTIKOAK	BIOTIKOAK	ANTROPIKOAK
<input type="checkbox"/> Mendia Morfologia (lautada, mendia)	<input type="checkbox"/> Landaretza motak: (basoa, belardia, larrea, baratzak, baso berri-tzeak...)	<input type="checkbox"/> Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jarduerak
<input type="checkbox"/> Lurzorua (harritsua, hondartsua...)	<input type="checkbox"/> Zuhaitz motak (baso naturalak, pinudiak)	<input type="checkbox"/> Meategiak, harrobiak
<input type="checkbox"/> Maldak (handiak, txikiak)	<input type="checkbox"/> Hesi biziak	<input type="checkbox"/> Zabortegia
<input type="checkbox"/> Ura (erreka, lakua...)	<input type="checkbox"/> Laborantzako espezie ohikoenak	<input type="checkbox"/> Industriak
	<input type="checkbox"/> Ikusitako edo entzundako animaliak	<input type="checkbox"/> Urtegiak
		<input type="checkbox"/> Komunikazio bideak (errepideak, autopistak...)
		<input type="checkbox"/> Tentsio altuko lineak eta gas hodiak
		<input type="checkbox"/> Ondare historikoak (elizak, dorretxeak, jauregiak...)
		<input type="checkbox"/> Eraikinak
		<input type="checkbox"/> Eraikin tradizionalak (baserriak, errotak...)

### HAUSNARKETA

- Bidaian zehar ikusi duzun paisaian desberdintasun nabarmenik ikusi al duzu ala bide guztian berdintsua izan da?
- Zein desberdintasun aipatuko zenituzke?
- Nola definituko zenuke ikusi duzun paisaia?
  - Naturala
  - Antropikoa
- Behatutako paisaia kontuan hartuta, nola imajinatzen duzu egon daitekeela paisaia hori 20 urte barru?